KONTZILIAZIO NEURRIAK GARATZEA TALENTUA MANTENDU ETA ERAKARTZEKO

LA RETENCIÓN Y ATRACCIÓN DEL TALENTO A TRAVÉS DEL DESARROLLO DE MEDIDAS DE CONCILIACIÓN



# KONTZILIAZIOA, TALENTUA MANTENTZEKO ETA ERAKARTZEKO TRESNA

# CONCILIACIÓN, HERRAMIENTA DE RETENCIÓN Y ATRACCIÓN DEL TALENTO

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ZER DA KONTZILIATZEA?

Kontziliatzea bi gauza edo gehiago bateragarri egitea da. Enpresako kontziliazioaz ari garenean, langileen bizitzako hiru alderdi hauek bateragarri egiteaz ari gara:

- **Familia:** etxeko zaintzak, senideen zaintzak, adingabeen hazkuntzak, harreman afektiboek eta abarrek osatzen dute.
- **Pertsona:** norberaren burua zaintzea, norberaren zaletasunei arreta eskaintzea, aisialdia, gizarte-harremanak, etab.
- **Lana:** pertsonaren garapen profesionala, prestakuntza, etab.

Guztiok uztartu behar ditugu bizitzaren hiru alderdi horiek. Erantzunkidetasuna izan behar da **familia**ren barruan; izan ere, kargak kide guztien artean banatu behar dira, eta beharrezkoa da **gizartea** horretaz jabetzea eta solidarioa izatea. Eta **lan-esparruan**, berriz, enpresek langileei laguntzeko neurriak eta irtenbideak eman behar dituzte.



# ¿QUÉ ES CONCILIAR?

Conciliar es hacer compatibles dos o más cosas. Cuando hablamos de conciliación en la empresa, nos referimos a hacer compatibles estas tres facetas de la vida de las personas trabajadoras:

- **Familia**: conformada por los cuidados del hogar, el cuidado de familiares, la crianza de menores, las relaciones afectivas, etc.
- **Persona**: el autocuidado de la propia persona, la atención a sus aficiones, ocio, las relaciones sociales, etc.
- **Trabajo**: el desarrollo profesional de la persona, la formación, etc.

Todas las personas necesitamos conciliar estos tres ámbitos de la vida. Además, debe darse una corresponsabilidad dentro de la **familia**, ya que las cargas deben estar distribuidas entre la totalidad de miembros, en la **sociedad** en general que tiene que ser consciente de la necesidad y ser solidaria y desde el ámbito **laboral**, donde las empresas deben aportar medidas y soluciones que ayuden a las personas trabajadoras.

## KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA; TALENTUA MANTENTZEKO ETA ERAKARTZEKO TRESNA

Enpresak une zailean daude inplikazioa eta irauteko konpromisoa dituzten langile kualifikatuak aurkitzeko.

Horregatik, antolaketa-eredu berriek pertsona zentroan jartzen dute, langileen premiei lehentasuna emanez eta konfiantzan eta komunikazio eraginkorrean oinarritutako lidergo-estilo berriak martxan jarriz.

Kontziliazio-neurriak ezartzeak, Langileen Estatutuak eta hitzarmen kolektiboek ematen dutenaz neurriez haratago, antolaketan lanean ari diren pertsonei eusten laguntzen die enpresei, eta, era berean, hautagai izan daitezkeen pertsonak erakartzen ditu.

Nazioarteko azterlanen bidez frogatu da kontziliazio erantzukidea sustatzen duten neurriek, besteak beste, **onura** hauek dakartzatela erakundeentzat:

- Lan-giroa hobetzea.
- Inplikazioa eta konpromisoa areagotzea.
- Enpresaren irudia hobetzea.
- Absentismoa gutxitzea.
- Txandakatzeko eta lanera itzultzeko kostuak murriztea.

Eta, ondorioz, talentua mantentzen eta erakartzen laguntzen dute.

## LA CONCILIACIÓN CORRESPONSABLE, HERRAMIENTA DE RETENCIÓN Y ATRACCIÓN DEL TALENTO

Las empresas se encuentran en un momento de dificultad para encontrar personal cualificado, con implicación y compromiso de permanencia.

Por ello, los nuevos modelos organizacionales ponen a la persona en el centro, dándole prioridad a las necesidades de trabajadoras y trabajadores y utilizando nuevos estilos de liderazgo basados en la confianza y comunicación efectiva.

La implantación de medidas de conciliación, más allá de lo que el Estatuto de las Personas Trabajadoras y los convenios colectivos conceden, ayuda a las empresas a retener a las personas que están trabajando en la organización y, a su vez, a atraer a posibles personas candidatas.

Se ha demostrado a través de estudios a nivel internacional que las medidas de conciliación corresponsable tienen, entre otros, los siguientes **beneficios** para las organizaciones:

- Mejora del clima laboral.
- Aumento de la implicación y compromiso.
- Mejora de la imagen de la empresa.
- Disminución del absentismo.
- Reducción de costes de rotación y reincorporación.

Y, como consecuencia, mejoran la retención y atracción del talento.





ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

## KONTZILIAZIO NEURRIAK

Literatura zientifikoak hiru bloketan banatzen ditu enpresetan aplika daitezkeen kontziliazio-neurriak:

- **Denborazko malgutasun-neurriak**: lanaldien egokitzapenarekin zerikusia dutenak (ordutegi malgua, txanda-aldaketa, opor malguak, ordaindu gabeko baimenak, etab.).
- **Malgutasun espazialeko neurriak**: lan egiten den espazioarekin eta haren malgutasunarekin zerikusia dutenak (telelana, mugikortasun geografikoa, jantokia, haurtzaindegia, etab.).
- **Beste neurri batzuk**: aurreko kategorietan sartzen ez diren neurriak (gizarte-onurak, administrazioaren laguntzak, jolas-jarduerak, etab.).

Sektorearen, jardueraren, enpresaren tamainaren... arabera, neurri batzuk besteak baino egokiagoak dira.
Horretarako, gomendagarria da aldez aurreko diagnostiko bat egitea, enpresak modu formalean ezarri ditzakeen neurriak zein diren jakiteko, baita modu informalean ezarri ditzakeenak ere, hau da, langileek egin ditzaketen ekintzak, modu ofizialean araututa egon ez arren.

## LAS MEDIDAS DE CONCILIACIÓN

La literatura científica divide en tres bloques las medidas de conciliación que se pueden aplicar en las empresas:

- Medidas de **flexibilidad temporal**: que tienen que ver con la adaptación de las jornadas de trabajo (horario flexible, cambio de turnos, vacaciones flexibles, permisos no retribuidos, etc.).
- Medidas de **flexibilidad espacial**: que tienen que ver con el espacio donde se trabaja y su flexibilización (teletrabajo, movilidad geográfica, comedor, guardería, etc.).
- **Otras medidas**: donde se incluyen aquellas otras que no entran en ninguna de las categorías anteriores (beneficios sociales, asistencia administrativa, actividades lúdicas, etc.).

Dependiendo del sector, actividad, tamaño de la empresa... unas medidas son más adecuadas que otras.
Para ello, es aconsejable realizar un diagnóstico previo, ver qué medidas dispone la empresa de manera formal y cuáles se realizan de manera informal, es decir, aquellas acciones que las personas trabajadoras saben qué pueden hacer pero que no están reguladas de manera oficial.





## ELGOIBARKO ENPRESAK KONTZILIAZIOAREKIN BAT

14 enpresak parte hartzen dute Elgoibarko Udalak abian jarri duen "Enpresan talentua mantendu eta erakartzea, kontziliazio neurriak ezarriz" proiektuan.

Helburua, udalerriko enpresen egoeraren diagnostikoa egitea eta erakundeei tresna erabilgarriak ematea da, betiere, enpresei denbora gehiegi kendu gabe.

2023an egingo diren ekintzen artean honako hauek daude:

- Bizitza pertsonala, familiarra eta lan-arloa uztartzen dituen kontziliazio erantzukideari buruzko albiste garrantzitsuenak biltzen dituen argitalpen bat bidaltzea hiru hilean behin.
- Sei hilean behin (aurrez aurre edo online) topaketa bat egitea, adituek kontziliazioaren arloan ezarritako jardunbide egokiak eta neurriak azaltzeko.

## LAS EMPRESAS DE ELGOIBAR CON LA CONCILIACIÓN

14 empresas participan en el proyecto del Ayuntamiento de Elgoibar "La retención del talento a través del desarrollo de medidas de conciliación".

El objetivo es realizar un diagnóstico de la situación de la empresas del municipio y dar a las organizaciones herramientas que sean útiles sin quitarles excesivo tiempo.

Entre las acciones que se realizarán en 2023 están:

- Envío de una publicación trimestral con las noticias más relevantes en materia de conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral.
- Realización de un encuentro semestral (presencial u online) donde personas expertas expliquen las buenas prácticas y medidas implantadas en materia de conciliación.



## ENPRESEN TOPAKETA

Proiektu honetan parte hartzen duten 14 enpresak gonbidatuta daude **ekainaren 9an** IMHren instalazioetan egingo den aurrez aurreko topaketan parte hartzera.

Bertan, egindako diagnostikoa ezagutaraziko da, eta EAEn bizitza pertsonala, familiarra eta lana uztartzearen arloan dauden ekimenen berri emango da.

Enpresetan egindako jardunbide egokiak ere azalduko dira, eta sortzen diren zalantzak argituko dira.

Izena emateko klikatu hemen.

## ENCUENTRO DE EMPRESAS

Las 14 empresas participantes de este proyecto están invitadas a un encuentro presencial el día **9 de junio** en las instalaciones del IMH.

En el mismo se dará a conocer el diagnóstico realizado y se darán a conocer las diferentes iniciativas que hay a nivel de la CAE en materia de conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

También se explicarán diferentes buenas prácticas realizadas en empresas y se resolverán las consultas que surjan.

Para formalizar la inscripción al evento pincha aquí.





## M23 KONTZILIAZIOAREN EGUNA

Martxoaren 23a Kontziliazioaren eta Erantzunkidetasunaren Eguna da. 2018an finkatu zen, gizartea kontzientziatzeko eta eragileak (administrazio publikoak, familiak, langileak, enpresak eta gizarte-eragileak...) eskubide horren aurrerabidean, babesean eta sustapenean inplikatzeko.

## 23M DÍA DE LA CONCILIACIÓN

El día 23 de marzo es el Día de la Conciliación y la Corresponsabilidad. Se estableció en 2018 con el objetivo de concienciar a la sociedad y de implicar a los diferentes agentes (administraciones públicas, familias, personas trabajadoras, empresas y agentes sociales...) en el avance, protección y promoción de este derecho.

## M23 AGENDA 23M

**Conciliando todo encaja**
Martxoak 23 - 18:00
Másfamilia Fundazioa

**Conciliando todo encaja**
23 marzo - 18:00
Fundación Másfamilia

**Sin conciliación no hay futuro**
Martxoak 23 - 10:30
Yo No Renuncio Elkartea eta
Telefónica Fundazioa

**Sin conciliación no hay futuro**
23 marzo - 10:30
Yo No Renuncio Elkartea eta
Telefónica Fundazioa

## ALBISTE INTERESGARRIAK

4 eguneko lan-astea, bideragarria al da? Emaitzak 33 enpresatan
Kudeaketa Behatokia. Euskalit.

Zein da telelanaren bilakaera pandemiaren ondoren?
Kudeaketa Behatokia. Euskalit.

Seme-alaben Hazkuntzarako Hileko Laguntza Berriak
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Estatuko dirulaguntzak, lanaldia murrizteko proiektuen bidez, industria enpresa txiki eta ertainetan produktibitatea hobetzen laguntzeko

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

## NOTICIAS DE INTERÉS

Semana laboral de 4 días, ¿es viable? Resultados en 33 empresas
Observatorio de Gestión. Euskalit.

¿Cómo está evolucionando el teletrabajo tras la pandemia?
Observatorio de Gestión. Euskalit.

Ayudas mensuales a la crianza de hijas o hijos
Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. Gobierno vasco.

Subvenciones estatales a Pymes industriales para la puesta enmarcha de proyectos piloto de reducción de la hornada laboral que mejoren su productividad
Ministerio de Industria, Comercio y Turismo

**Kontzilia**
Familia eta Haurren Zuzendaritzaren webgunea, kontziliazio erantzukideari buruzko informazioarekin. Kontsultak egiteko zerbitzua du.

{kontzilia}

**Kontzilia**
Espacio web de la Dirección de Familias e Infancia donde encontrar información sobre conciliación corresponsable. Tiene un buzón donde poder realizar consultas.



KONTZILIAZIO NEURRIAK GARATZEA TALENTUA MANTENDU ETA ERAKARTZEKO

LA RETENCIÓN Y ATRACCIÓN DEL TALENTO A TRAVÉS DEL DESARROLLO DE MEDIDAS DE CONCILIACIÓN



DAITEKE
consultoría social
gizarte aholkularitza

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

berdintasuna@elgoibar.eus